



Gela irekia

Ikasleen erroreen aurrean gure jokabideak

Olatz Bourgeaud

Berezko parte dira erroreak hizkuntzaren ikas-prozesuan. Eta adostasun handia dago hizkuntz irakaskuntzaren alorrean H_2 hitz egiten, batez ere, hitz eginez ikasten dela aitortzean. Beste horrenbeste esan genezake idazten ikasteari dagokionez ere. Artikulugileak euskaltegiko ikasleen ekoizpen-erroreei nola egiten dieten aurre azalduko du. Bi ataletan banatu du artikulua: idatzizkoaren zuzenketa eta ahozkoaren zuzenketa. Eta bietan emango digu euskaltegian erabiltzen dituzten zuzentzeko teknika eta jokabideen berri.

Idatzizkoaren zuzenketa

Ikasle gehienentzat idaztea orri zuri bat hitzez eta esaldiz betetzea da: ez dute hausnarketa handirik egiten idazten dutenari buruz, ez dute inoiz zirriborroa egin beharrik ikusten, burura datorkien gutzia idazten dute. Eta orriaren amaiera aldera heltzen direnean “listo!” diote. Horrela jarduten dutenentzat, gai bati buruz idaztea orri zuri batean, bururatzen zaien gutzia apuntatzea da, ahalik eta akats gramatikalik gutxienekin eta arin. Ez da beharrezkoa idatzitakoa berriro ikustea ezta berriro egitea ere. Gainera, uste izaten dute idazten ez dakitenek baino ez dituztela zirriborroak egiten.

Irakasleok, era berean, pentsatu ohi dugu azken produktua, geuk zuzenduko duguna, dela inportantea eta gure eginbeharra dela idazlan guztietan akats guztiak edo gehienak zuzentzea. Eta horrelaxe “landu” izan dugu urte askoan trebetasun hori: irakasleak gai baten inguruko titulua eta, agian, beste argibideren bat emanda, ikasleek epe laburrean etxean eta bakarka idatzi behar izan dute beti idazlana.

Ikasle batzuek lehenengoz zirriborroa egin eta ondoren garbira pasatzen dute. Irakasleak idatziak jaso eta zuzendu egiten dizkie. Zuzendutakoa, normalean, gramatikaren arloko gauzak izaten dira. Eta ikasle batzuek, zalanza gramatikalak argitu ondoren, idazlanak gorde egin dituzte.

Ezin ahaztu daiteke, gainera, irakasleok gehienetan idazlan-pilo bat eta denbora gutxi izaten dugula zuzenketa horiek egiteko. Hori dela eta, askotan, gogo txarrez eta betiko prozedurak erabiliz, idazlanak jaso eta aste betera gainbegiratzen ditugu. Gainera, arestian esan bezala, zalan-tzan jartzen dugu zuzenketaren emaitzek onik ekarriko duten ere, ikasle-ek ez baitiete gure oharrei guk nahi beste tarterik eskaintzen, eta konturatzen gara hurrengoan ere errore berberak egiten dituztela.

Lanketa, laburbilduta, horixe izan da eta, batzuetan, halakoxea izaten da oraindik ere “astirik ez galtzearren”. Gainera, urrats bakoitzean testu-mota bakarra eta, gehienetan, testu-era bakarra landu eta ebaluatu dugu.

Ikasgelako partaide guztiok ditugu idazmenari eta zuzenketari buruzko kexak. Bai ikasleek bai guk ere ohitura dugu geure garaiko hezkuntza-sistemako eskolak markatutako irizpide subkontzienteekin jarraitzeko: ikasleak bakarka idatzi behar du eta irakasleak berak zuzendu behar dizkio idazlanak (errore guztiak azpimarratuz, edo koderen bat erabiliz, edota zuzenketa guztiak eginda). Sustrai luzeko ohiturak dira horiek eta zailak aldatzen, ikasleek ere maiz horixe eskatzen baitigute.

Egungo teorialari gehienek *prozesuzko planteamendua* (edo eredu prozesuala) proposatzen dute irakasteko. Horri jarraikiz, ikasleek ideiak biltzen dituzte, zirriborro bat egiten dute, zirriborroari buruzko iritziak biltzen dituzte, horrekin beste zirriborro bat egiteko... Zenbait unetan beste ikas-kideek erreakzionatu egiten dute testuaren aurrean, adostasuna adieraziz, galderak eginez, edo bestelako modu naturaletan erantzunez. Horrela, hobeto komunikatuko duen testu bat sortzen laguntzen diote ikaskideari.

Testua sortzeko prozesu horretan sartzen dira axaleko erroreak zuzentzea, esaldiak berriro idaztea eta, agian, testu osoa berrantolatzea ere. Ikasleak forman fokalizatzeko astia du idazterakoan baita, bere hipotesiak esperimintatuz, birformulatzeko eta hausnartzeko aukera ere. Testua, beraz, era interaktiboagoan zuzentzen da. Irakaslea ez da, halabeharrez, zuzenketan parte hartzen duen bakarra.

Auto-zuzenketa gidatua egin ahal da edo binakakoa; formaz gain, mezua ere zuzendu ahal diote elkarri edo eskemak, edo zirriborroak, edo para-grafoak, edo ortografia, edo azken bertsoiak...

Baina, zenbaitetan, irakasleak berak zuzendu behar izaten du produktua edo azken emaitza eta, halakoetan, ondoko irizpide hauei jarraitzea erabaki dugu:

1 *Ikasleak uler dezakeena baino ez zuzendu:*

Zuzenketaren azken helburua zera da: ikasleak idatzitakoa zelan hobetu ahal duen erakustea. Baina, ezin dugu gauza piloa ikasi aldi berean, ezta ikas-prozesuan, aldi bakoitzean dugun ahalmen-neurritik

haragoko gauzarik ere. Horregatik, hain zuzen, hutsegiterik garrantzitsuenak, banaka batzuk, ikasleak erraz ulertuko dituenak baino ez dizkiogu zuzenduko. Eta ikasleekin ere komentatuko dugu hori: irakasleak ez diela beti den-dena zuzenduko.

2 Testuaren eta idaz-prozesuaren edozein arlo zuzendu:

Zuzenketaren kalitatea hobetu egingo dugu. Zuzenketaren lana ez da ortografia eta morfosintaxia zuzentzera mugatzea. Horrela eginez gero, ikasleek ere idazterakoan arlo hori baino ez dute kontuan hartuko. Horregatik komeni zaigu zuzenketa orokorrakoak egitea: testuaren ezaugarri desberdinak kontuan hartuz eta, idazteko prozesuaren une desberdinetan egiten denean, arlo desberdinei erreparatuz. Zuzentzea testua berrikusteko eta hobetzeko moduak eskaintzea baldin bada, askotan zirriborro bat goitik behera berridaztea eskatuko du, testu erabat berria sortuz.

3 Aholku erabilgarriak eman:

Iruzkina egin behar ditugunean, zenbaitetan gertatzen zaigu orokorrekiak direla edota testua hobetzeko informazio argirik ematen ez dugula. Eta, ikasleek oharrak irakurtzen dituzte eta ez dute jakiten zer egin behar duten ondoren. Ohar zehatzak ematen ahaleginduko gara, beraz: “4. paragrafoa luzatu”, “irakurri berriro puntu hau”, “idatzi esaldi laburrakoak”, “berridatzi zati hau”, “puntuazio-zeinu gehiago jarri”...

4 Ahalik eta arinen zuzendu:

Idazlana egin eta egun batzuetara berriz jasotzen dutenean, zuzenketen gaineko interesa eta idatzitakoa berridazteko motibazioa galdu ohi dute ikasleek. Idatzitakoak freskotasuna galdu eta aise alde egiten du, jeneralean, ikaslearen oroimenetik. Zuzenketarik eraginkorrenak ikaslearen aurrean egiten direnak dira, ikaslea idazten ari den bitartean zuzentzen zaizkionak. Irakasleak hurrengo egunerako zuzentzeko astirik izan ezean, ikasgelan bertan zuzen ditzake ikaslearen aurrean edo-eta berarekin batera (tailerraren teknika).

5 Irakaslearen zuzenketak irakurri eta komentatzeko tartea eskaini:

Lehen esan duguna gerta ez dadin, merezi du minutu batzuk honetan ematea. Saioaren hasieran edo amaieran egin daiteke, idazlanak banatzen diren momentuan. Eta irakaslea banan-banan joango da zer egin behar duten argitu nahi duten ikasleen ondora.

6 Erroreak markatu eta ikasleari soluzioa eskatu:

Irakaslea idaz-prozesuan laguntzaile gisa arituko da, ikasleari non dabilen herren esateko. Zeregina motibagarriagoa izango da eta ikaslea sustatuko du parte hartzera eta autonomoagoa izatera. Lan gehiago eskatzen badio ere, ikasleari ikusarazi behar zaio egin dituen hutsegiteen nondik norakoak ulertu behar dituela eta, horrela, ikasteko aukera handiagoak ere izango dituela. Erroreak markatzeaz gain, batzuetan horiek zuzentzeko pista gehiago eman ahal zaizkio kode baten bidez.

7 Ahoz zuzendu elkarrizketaren bidez:

Askotan, oharrak idazten ditugunean, konturatzen gara iruzkinak eurak idazlanak baino luzeagoak direla, oso zaila baita idaztea, esaterako, non ikusten dugun paragrafoaren inkoherentzia edo ideia bat ondo garatuta ez dagoela.

Berba asko eta denbora luzea eskatzen dute halako zuzenketek. Ikaslearen ondoan jarri eta elkarrizketa labur batek, ostera, denbora laburrean hutsegite zailak azaltzeko aukera eman diezaguke eta, aldi berean, ikasleen galderei erantzuteko eta azaldu dieguna ulertu duten egiaztatzeko. Noizean behin, eta tartean lan garrantzitsuren bat denean, ikasleei bosna minutu eskainiz asko aurreratu ahal dugu.

8 Auto-zuzenketarako lan-tresnak ezagutarazi:

Idazle trebatuaren ezaugarria omen da egin ditzakeen erroreak zuzentzeko edo hutsuneak gainditzeko gai izatea, autonomia delako. Idazten ari diren bitartean hiztegiak, gramatikak eta kontsultarako hainbat liburu erabiltzen ditugu guk geuk ere.

Gure ikasleek, ostera, uste izaten dute baliabide horiek erabiltzean gai ez direla, edo nagitu egiten dira, edo ez dakite zelan erabiltzen diren. Ikaslearen autonomia bultzatzeko halako liburuak edo internetek eskaintzen dituen webguneak erabilarazi beharko genizkieke, noiz-behinka horretara bultzatuko dituzten jarduerak proposatuz.

9 Zirriborroak zuzendu:

Ikasleak, behin idazlana amaitutzat jo eta irakasleari emandakoan, berridazteko eta hobetzeko motibaziorik ez duela esan ohi da. Amaituta dagoen idazlanak ez ei dakar hurrengo pausorik. Arazo hori gainditzeko modua izan liteke azken testuaren aurreko zirriborroa zuzentzea. Horrela, ikasleek hobeto landu ahal izango lukete idazlana, zuzenketak azken bertsiorako erabiliz. Berrikusketa bultzatuz, bada, idaz-prozesu osoa indartzen ari gara.

Zuzenketa ez da ebaluazio-modu bat edo, lantzean behin, egiten den kontrola, beti era berean eta teknika bereberekin egin behar dena. Zuzenketa-teknika desberdinak erabili ahal ditugu, idazlanerako ariketa-mota desberdinak erabiltzen ditugun moduan.

Ahozkoaren zuzenketa

Idatzian ez bezala, ahozko erroreak zuzentzeari buruzko informazioa ez da oso ugaria. Baina badira beste hizkuntza batzuetan ikasgelako berbal-diari buruzko hainbat ikerketa interesgarri, geure hizkuntzan ere noizbait egin beharko liratekeenak. Bitartean, bat gatoz geurean oinarritzko zenbait puntutan:

1 Zuzentasuna eta jarria:

Irakasleok, lehenengoan –arauetan edo hizkuntzaren forman– jantziago gaude jarioan baino, eta, horregatik ohituago gaude hari erparatzen, beste alde batetik errazagoa ere badelako. Baina irakasleok

osagai biak hartu behar ditugu kontuan parte hartzen dugunean: bate-tik, ikasleei dituzten hutsik nabarmenenak ikusiaraziz, eta, bestetik, adierazpenaren erraztasunaz, erritmoaz edo ziurtasunaz beharrezko diren komentario orokorrak eginez.

2 *Neurriko zuzenketa:*

Ahozko zuzenketak beldurra edo larritasuna sorrarazi dezake ikaslea-
rengan. Ikasleren bati, bai talde handiaren aurrean lotsatia delako bai
zalantzatia delako, askotan esaten bazaio okerren bat egin duela bere
kalterako baino ez da izango. Ikasleen performantzia zuzentzean, bada,
zuhur ibili behar dugu eta ikasle bakoitzaren ezaugarriei egokitu.

3 *Auto-zuzenketa eta ikaskideen arteko zuzenketa bultzatu:*

Ezinezkoa da irakasleak ikasle guztiak eta parte hartze guztiak kon-
trolatzea. Ikasleek etengabe hobetzeko eta lankidetzan aritzeko jarre-
rak, norberaren aurrekoa nahiz ikaskideen aurrekoa, garatu beharko
lituzkete. Ikasleak, esaten duenaren erantzule bakarra baldin bada,
zuzenketan ere parte hartzen ikasi beharko luke. Ikusi egin behar du
zer egin duen txarto, huts hori zein komunikazio-egoeratan egin duen
ere ondo kontuan harturik: hori guztia lortzeko modu bat izan liteke.
bere burua bideoan ikustea edo bere ahotsa kasetean entzutea.

Ahozko errorean aurrean, irakasleonek zereginari buruz, honako bide
hauek eskaintzen dizkigute hainbat autorek:

A) *Argibideak eskatu:*

A.1) *Erroreak zeintzuk diren esan bai, baina ez zuzendu:*

Irakasleok erroreak ikusarazi behar dizkiegu ikasleei, baina ez
da nahitaezkoa zuzentzea. Horrek ikaslearen beraren zeregina
izan beharko bailuke. Berehalako zuzenketak honela egin litez-
ke: errorea bera errepikatu baina galdera-tonuan, edo aurpegiko
keinuren baten bidez, edo okerra zuzenaraziko dion edozein
argibide eskatuta: *e?, Barkatu?*

A.2) *Okerrik inportanteenak baino ez zuzendu:*

Ikasleak, hitz egiten duen bakoitzean, ezin ditu errore guztiak
hausnartu eta hurrengoetarako zuzendu. Argibideak etengabe
eskatzeak traba egin ahal du jarduera komunikatiboan, baita
hori guztiz moztu ere. Eta gerta daiteke etenaldi horiek ikaslea-
ri adorea galaraztea ere. Gainera, litekeena da errore horietako
batzuk oraindik ezagutzen ez dituen egiturak edota maila altua-
goko ezagutza linguistiko edo gramatikalak izatea. Irakasleak
adi egon behar du ikaslearen outputean hipotesiak identifikatu
eta dagokien feedbacka eman ahal izateko.

Hainbatetan, ikasleak, erroreak egiten dituenean, ezagutzen ez
duen edo ikasi berri duen arauen bat aplikatzera behartuta

dago, umeeek ama-hizkuntzan egiten duten moduan. Horregatik, hain zuzen, oinarritzkoenak eta benetan ulertu eta asimilatu ahal dituenetan baino ez dugu arreta jarriko. Kontu handiz ibili behar dugu hemen, ondoko adibidean bezala jardutea helburuz kontrakoa baita. Adibidez:

Ir.: Astelehenera arte denoi.
Ik.1: Ez, astelehena ez dugu etorriko.
Ir.: Noiz? Esan berriro.
Ik.1: eeeee, astelenan
Ir.: astelehen... Ea...zelan esaten da: “trenan”?
Ik.1: Trenean.
Ir.: Orduan astelehen..?
Ik.1: eeeeeee, astelehenean?
Ir.: Horixe! “Astelehenean ez *dugu* etorriko” esan duzu?
Ik.2: Ez *gara*.
Ir.: Hori da: “Astelehenean ez *gara* etorriko”. Eta zergatik?
Ik.2: Jaia da.
Ik. 3: Jaia delako.
Ir.: Ederto. Beno, ba, orduan asteartera arte.
...

Ez da hori gehiegizkoa? Ez du horrek mezuaren esanahia oztopatzen? Horren aldean, hizkuntz irakaskuntzaren gaineko ikerketak beste feedback-mota bat proposatzen digu irakaslearen erantzun-estrategiak zabal-tzeko:

B) Birformulazioa:

Birformulazio-mota desberdinak badaude ere, funtsean hauxe egiten da guztietan: jatorrizko hitzun batek birformulatu egiten du ikasleak esan edo idatzi duena, ahal den neurrian, jatorrizko esanahia gordez. Gauza bi azpimarratu nahi genituzke: batetik, irakaslearen erantzunaren naturaltasuna eta, bestetik, komunikazioaren edukiari erreparatzea, mezua kode-tzeko erabilitako hizkuntzari begiratu beharrean.

Adibidez:

Ir.: Astelehenera arte denoi.
Ik.: Ez, astelehena ez dugu etorriko.
Ir.: Astelehenean ez? Zer ba?
Ik.: Ez dago klasea.
Ir.: Ez dagoela klaserik? Ez dut ulertzen. Zergatik?
Ik.: Santa Rita eguna da eta ez etorri.
Ir.: A, bai, egia da! Ez zarete etorriko! Tira, ba. Asteartera arte orduan eta asteburu ona izan!

Irakasleak, lehendabizi, edukiari erantzuten dio baina, aldi berean, birformulatu egiten ditu ikasleak esandakoak, esan gura zutena esateko forma zuzenak entzun ditzaten.

Okerreko performantzia eta eredu-zukoaren arteko aldea begien aurrean jartzea da inongo oharrik egin barik. Euren esku geratzen da erkaketa horretan zeri erreparatu eta zer ikasi. Krashen-ek dioenez, ez dago ziurtatzerik honelako hedapenek ikasleak zuzenago berba egitera bultzatuko dutenik. Ikasle batzuek birformulazio natural hori modu induktibo eta kontzientean ikasteko erabiliko dute baina, horrela ez denean ere, birformulazioak behintzat input ulergarri gehiago emango dio.

Tekniken arlora joanez gero, berehalako zuzenketaren eta geroko zuzenketaren arteko bereizketa egiten da. Lehenengoan, ikasleak errorea egin eta berehala ekiten zaio eta, bigarrean, ikasleak hitz-jarduna amaitu ostean aztertzen dira erroreak. Biek dituzte alde onak (+) eta txarrak (-):

Berehalako zuzenketa:

- Ikaslea “blokeatu” ahal da.
- ± Une jakin bateko errorean jartzen da arreta.
- + Testuinguruan bertan zuzentzen da.

Geroko zuzenketa:

- + Jardun osoan egindako errore inportanteak eta errepikatuak aukeratzten dira.
- Testuingurutik kanpo jorratzen dira.
- Irakasleak paperean idatziz jaso behar ditu eta, hori dela-eta, askotan gal dezake haria.

Horien aldeak aintzat hartuta, didaktikak zenbait teknika eskaintzen dizkigu zuzenketa hainbat modutan egiteko:

- *Auto-zuzenketarako fitxa*: Ikasle bakoitzak fitxa bat dauka bere izenean. Irakasleak bertan idazten dizkio egin ohi dituen erroreak eta ezabatu gaitu dituenak.
- *Esaldi-enkantea*: Irakasleak hainbat esaldi prestatzen ditu ikasleen errorerik ohikoenak erabilia eta zuzen dauden beste esaldi batzuekin nahasten ditu, gela osoaren aurrean esaldi horien guztien enkantea antolatzeke. Ikasleek, taldeetan, zuzen dauden esaldiak erosi behar dituzte. Talde bakoitzak esaldiak erosteko, alde aurretik adostu den diru-kopuru bera du.
- *Zuzentzaile-rola*: Ikasle batek aldi baterako (ariketa, saio edo aste baterako) zuzentzailea izango da bere taldean edo ikaskide guztiena. Bere zeregina alde aurretik zehaztuko da: errore-zerrendak egitea, soluziobideak aurkitzea, ikaskideei ikusaraztea...

Hala ere, errorearen bat behin eta berriz errepikatzen dela ikusten denean, erantzuteko erarik egokiena ariketa-sekuentzia oso bat prestatzea litzateke.